

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKTak eta Konpetentzia Digitalak

**Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen
Irakaskuntzan**

Berezko Tituluko Proiektua

IKTak erlijioaren irakaskuntzan

Egilea

Ander Goikoetxea Seoane

Zuzendaria

Pedro Lonbide Lizarralde



ueu

udako
euskal unibertsitatea

2020

Laburpena

Erljioaren irakaskuntzak gaur egun arazo asko ditu. Batetik, erlijioa ikasgaia kolokan dago gure gizartean eta gero eta ikasle gutxiagok egiten dute bat arlo honekin, gehienak eskola publikoetan. Bestetik, irakasleek ez dute erraz jakitea zeintzuk kompetentzia edo eduki garatu behar diren arlo honetan, jakinda eskoletan hainbat errealitate eta kulturatako ikasleak daudela. Zentzu horretan, askotan ez da erraza dibertsitate horri aurre egitea. Atal hauek guztiak hauek proiektuaren garapenean era sakonean azalduko ditugu eta horiei erantzun bat ematen saiatuko gara.

Lan honetan, IKTek irakaskuntza alorrean gaur egungo gizartean duten pisua eta garrantzia ikusita, Erljioa eta IKTen mundua lotzeko ahalegina egingo dugu. Beharrezkoa ikusten dugu bi alor hauek batzea IKTek erlijioa ikasgaiari bultzada bat eman diezaioketelako, bai metodologia praktikoago bat aurrera eramanez eta baita ikasleen motibazioa piztuz ere.

Lan honetan proiektuaren deskribapena egingo da. Aurrerago gauzatuko da proiektua eskolako webgunean bertan.

Gaien aurkibidea

Laburpena	1
Gaien aurkibidea	2
Irudien aurkibidea	3
Sarrera	5
Proiektuaren helburuak	7
Proiektuaren garapena	8
Ondorioak	54
Bibliografia	55

Irudien aurkibidea

6º curso de Religión y Moral Católica. Educación Primaria		
Contenidos	Criterios de evaluación	Estándares de aprendizaje
La incapacidad del ser humano para ser feliz reclama la salvación.	Bloque 1. El sentido religioso del hombre 1. Evaluar circunstancias que justifiquen la responsabilidad de la salvación humana para alcanzar la plenitud. 2. Reconocer y explicar la necesidad de un salvador para ser feliz.	1.1. Identifica y juzga situaciones en las que reconoce la responsabilidad de ser feliz. 2.1. Busca, resume y comenta diáscetas expresiones del ser humano de salvación en la literatura y música actuales.
La plenitud del ser humano está en la relación con Dios.	3. Interpretar signos, en distintas culturas, que evidencian que la plenitud humana se alcanza en relación con Dios. 4. Reflexionar que la relación con Dios hace a la plenitud del ser humano.	3.1. Descubre y explica por qué los entonamientos, gestos, ritos y costumbres son signos de la relación del hombre con la Divinidad. 4.1. Investiga y recoge acontecimientos de la historia donde se aprecie que el hecho religioso ha sido el motor de cambios para proteger los derechos humanos, la convivencia, el progreso de la paz.
El pueblo de Israel como depositario de la voluntad de Dios.	Bloque 2. La revelación: Dios interviene en la historia 5. Descubrir y apreciar la riqueza de los textos sagrados en la fe.	5.1. Identifica y valora expresiones recogidas en los libros sagrados que emboscan y emboscan a la persona. 5.2. Investiga y contrasta la voluntad popular con expresiones de la voluntad de Dios escuchando con
Los libros Sapientiales entregaron a la humanidad.		


1.1.Irudia: Erlijio eta moral katolikoaren ikasgaia LH 6 maila. *Conferencia Episcopal Española Currículo de Religión y Moral Católica.*

6º curso de Religión y Moral Católica. Educación Primaria		
Contenidos	Criterios de evaluación	Estándares de aprendizaje
Resurrección de Jesús.	Bloque 3. Resurrección, cumplimiento de la Promesa de la Tabernáculo 1. Entender que el hecho Jesús resucitó y Dios.	1.1. Busca en los discursos del Evangelio de san Mateo que expresan la relación de Jesús con el Padre y evidencia por qué resucitó. 1.2. Identifica y analiza los signos que Jesús muestra del Padre en los discursos del Evangelio de san Mateo.
Los discípulos de Jesús obedecieron al cumplimiento del plan de Dios.	2. Entender por qué Jesús tiene que vencer obstáculos para realizar la voluntad de Dios.	2.1. Entiende los obstáculos que Jesús tiene en su vida para obedecer al Padre con situaciones que afectan los seres humanos.
Jesús envía a los discípulos para continuar con su misión salvífica.	3. Comprender que la misión de Jesús continúa en la Iglesia.	3.1. Lee y explica la misión apostólica en los evangelios. 3.2. Contrasta un relato comparativo de la acción de Jesús y los de la Iglesia.
Los sacramentos al servicio de la misión de la Iglesia: Confirmación, Orden y Matrimonio.	Bloque 4. Permanencia de sacramentos en la historia de la Iglesia 4. Entender la importancia de los sacramentos de la Iglesia.	4.1. Compara y explica con ejemplos la misión de la Iglesia. 4.2. Aprende y diferencia los signos y momentos celebrativos de la Confirmación, el Orden y el Matrimonio.
La Pasión, tiempo de resurrección. Los frutos de la Pasión.	5. Identificar los signos del tiempo litúrgico de la Pasión.	5.1. Señala y explica los principales signos pasionales.

1.2.Irudia: Erlijio eta moral katolikoaren ikasgaia LH 6 maila. *Conferencia Episcopal Española Currículo de Religión y Moral Católica.*

6º curso de Religión y Moral Católica. Educación Primaria		
Contenidos	Criterios de evaluación	Estándares de aprendizaje
la resurrección de Jesús: la alegría y la paz.	Pasión.	2.2. Crea una composición donde se exprese la alegría y la paz que experimentaron los discípulos al encontrarse con el Resucitado.
Los cristianos, herederos de la resurrección.	3. Reconocer y valorar el cambio de vida generado por el encuentro con el Resucitado.	3.1. Detecta elementos de vitalidad y justifica el cambio generado por el encuentro con el Resucitado.

1.3.Irudia: Erlijio eta moral katolikoaren ikasgaia LH 6 maila. *Conferencia Episcopal Española Currículo de Religión y Moral Católica.*



1.4.Irudia: LH amaierarako ikaslearen IRTEERA PROFILA - Konpetentzia digitalak

Sarrera

IKTen inguruko praktika onak zeintzuk diren jakitea behar beharrezkoa da. Garatu beharreko metodologiak praktikari estu lotuta egon behar du, pedagogiaren eta didaktikaren ekarpenak sistematizatu behar ditu eta teoria pedagogiko eta didaktikoetan oinarritutako gidalerroa mantendu behar du (Arroyo eta Camacho, 2018).

XXI.mendean, beraz, nola irakatsi behar da? Irakaskuntzan aldaketa pedagogiko handia gertatu da. Errepikapenaren pedagogia alboratu egin behar da. Gizakiok inoiz baino globalagoak gara, baina aldi berean inoiz baino ahulagoak. Hau guztia kontuan izanda irakasleek saiatu behar dute ikasle jantziak sortzen, kritikoak eta IKTetan kompetenteak. Beraz, azken finean, eskola birsortu egin behar da, jakinda zertan berritu eta hobetu behar den irakaskuntza eredua.

Hurrengo orrialdetan zehar proposatuko den lanak Erljioa ikasgaia eta IKTak bateratuko ditu. Erljioa ikasgaia gaur egungo gizartean pisua galtzen ari da nabarmen eta, bestalde, ikasgai horren garrantzia kolokan jartzen ari da hainbat estamentuen aldetik. Horren eraginez, ez dago ukatzerik eskola gehienetan (izaera erlijiosoa daukaten eskolak izan ezik) oso ikasle gutxi aukeratzen dutela ikasgai hau. Azken datuen arabera 2019 urtean 3,3 milioi ikaslek jorratu zuten erlijio ikasgaia, hau da, ikasle guztien %61,98 eskola publikoan, pribatuan eta itunpekoan. Datu hau demokrazia ezarri zenetik baxuena da Religión Digitalen esanetan.

Hau guztia gutxi ez eta, betidanik ikasgai hau emateko modua oso teorikoa izan da eta horrek ere ikasleen motibazioan kalteak sortu izan ditu. Horregatik lan honek ikuspegi horri aurre egin nahi dio.

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa ardatz (6.maila) hartuta eta Moodle softwarraren bitartez, Erljioa ikasgaia eta IKTak bateratu nahi dira. Horretarako metodologia-joera

berriak kontuan hartuko dira. Moodle aukeratu dugu besteak beste software hau librea delako eta ikasleentzat eroso delako. Irakasle zein ikasleen papera aktiboa izango da bien arteko inplikazio arduratsua sustatuz.

Metodologia-joera berriei erreparatuz, proiektu-arazoetan oinarritutako metodologia ardatz hartuko da gaur egungo beste aukerak (gamifikazioa, flipped-learning, u-learning, ikaskuntza adaptatiboa...) baztertu gabe. Landuko diren jarduerak era askotakoak izango dira. Horiek sortzeko Moodlek eskaintzen dituen tresnak (foroak, galdetegiak, zereginak....) erabiliko dira eta baita bestelako baliabide digital batzuk ere.

Bukatzeko eta gaztelaniako terminoak kontuan hartuz, TICetik TRICerako bidea jorratu behar dugu. Harremanak kontuan hartu behar dira, hau da, teknologiak gizatiartu behar ditugu. Parte-hartzearen kultura sustatu behar da, azken finean IKTek irakaskuntza gidatzeko laguntza eta bide bat izan behar dutelako eta ez helburu bere baitan.

1.KAPITULUA

Proiektuaren helburuak

Proiektuan hurrengo bi helburu hauek garatu nahi ditugu:

1. Erlijioa irakasgaiari orain artekoa baino metodologia praktikoagoa eskaintzea
2. Ikasleen motibazioa areagotzea irakasgaia IKTen bidez landuta.

Baina, badaude horiekin batera eta zehar-lerro gisa lortu nahi ditugun beste azpi-helburu batzuk ere: norberaren ezagutza eta bestearen onarpena, gaitasun digitalaren garapena, elkarlanaren balioaz jabetzea, artelanez gozatzea... Unitate eta jarduera bakoitzean agertuko da hauetako batzuen lanketarako bidea .

2.KAPITULUA

Proiektuaren garapena

Azken urteotan, gehienbat 1978an Espainiako Konstituzioa ezarri zenetik, lege aldaketa ugari egon dira eskola irakaskuntzan, eta horrek eragin zuzena izan du Erljio katolikoaren arloan eta baita arlo horretan ari diren irakasleengan ere. Elizaren hainbat dokumentutan Erljio katolikoaren irakasleei erreferentzia egiten zaie ikuspuntu hezitzaile eta profesional batetik, baina gutxi dira haien profilaren inguruko azterketa edo hausnarketa egin dutenak.

Gaur egun bi motatako irakasleek ematen dute Lehen Hezkuntzan Erljio eta Moral katolikoaren ikasgaia. Irakasle horietako asko apaizak edo erlijiosoak dira, beste batzuk (gehienak) kristau laikoak dira LOGSEk eskatzen duen oinarrizko titulazioa dutenak eta, horretaz gain, espezializazio teologikoa eta pedagogikoa dutenak, Espainiako Konferentzia Episkopalak hala eskatuta.

1979ko urtarrilaren 3an Espainiar Estatuak eta Egoitza Santuak sinatu zuten hitzarmenaren arabera, irakasle funtzionarioek, beti ere Konferentzia Episkopalak eskatzen duen titulazioa dutenek, lehentasuna dute erlijio klaseak emateko, etapa hauetan, Lehen Hezkuntzaren kasuan, curriculumak izaera globalizatzailea duelako. Erljio katolikoaren irakasleak Elizari zerbitzu testigantza ematen dio, fedearen eta irakasten dituen beste arloetako edukien arteko elkarriketa errazten du eta ikasleei erakusten die bere sinesmen erlijiosoaren eta hezitzaile bokazioaren arteko koherentzia.

Baina erlijio irakaslearen identitateaz hitz egiten dugunean, honako galderak sortzen zaizkigu: nor da?, zeintzuk dira bere funtzioak?

Irakaskuntza eta Katekesi Batzorde Episkopalak erlijio katolikoaren irakasleen profila zehazten du. Eskolan erlijioaren irakaskuntza dela eta, alde batetik, gurasoek eskubidea dute haien seme-alabek formazio erlijio eta morala jasotzeko eta, bestetik, ikaskuntza honek ikasleen pertsonalitatean eta garapen integralean eragin behar du. Azken hau da Espainiako Konstituzioak Eskola heziketari egokitzen dion helburua. Helburu edo xede honi erantzun egiten dio erlijioaren irakaskuntzak ikaslearen

formazio integrala lortzeko eskaintzen duen dimentsio erlijioso garrantzitsuarekin. Hezkuntza sistemaren beste alor bat da, kulturaren eta fedearen arteko elkarriketan oinarritzen dena. Oinarrizko hiru puntu horiek erlijio irakaslearen profila zehazten dute.

Erljioaren dimentsioak gizakiaren formazio integralean berebiziko garrantzia dauka. Gaur egun, gizartearen esparru guztietan aldaketa kultural garrantzitsuak ematen ari dira. Aldaketa orok tentsioak zein gatazkak eragiten ditu eta pertsonen bizitzan eragina izaten dute. Hezkuntzak gatazka hauei aurre egin behar die pertsonen garapenean eragina dutelako. Gizakiaren gaitasun guztiak sustatuz aurre egin behar zaie gatazka horiei, modu orekatu batean. Hori da eskolak duen erronka nagusia ikasleen nortasunean garapen integrala lortu nahi badu. Eskolak, irakasleak zehazki, guraso zein beste hainbat erakunderekin elkarlanean aritu beharko dira.

Hezkuntza integralaren inguruan aritzen garenean, adierazi nahi da ikasleek oinarrizko hezkuntza bukatzen dutenean ez dutela bakarrik jaso lanerako edo gizartean bizi ahal izateko oinarrizko informazioa. Alegia, ez dutela bakarrik ezagutzen edo egiten ikasi behar. Izaten ere ikasi behar dute eta baita ere besteekin izaten. Elkarrekin bizitzen jakin behar dute. Belaunaldi berriek modu konstruktiboan heldu behar diote gizarteari modu arduratsu, solidario eta baketsu batean. Erljioaren irakaskuntzak elementu esanguratsuak eskaintzen dizkio eskolari nahi duen formakuntza integrala lortzeko. Pertsonengan oinarritzen da, horien arazoetan, itxaropenetan eta behar izan sakonetan, hau da, izaten ikasten laguntzen du. Erljioaren irakaskuntzak, beste arlo batzuekin batera, bere alderdi humanizatzaileenean, garatu egiten ditu pertsonaren gaitasun intelektualak, espiritualak eta erlijiosoak. Horregatik erlijio irakasleak, beste irakasle batzuk bezalaxe, maisu hezitzailea izan behar du. Hezitzailea den heinean ez da bakarrik sistema, programa edo metodoetan oinarritzen, ikasleekin elkarrekiko erlazio bat sortzen du, enpatiazko erlazio batean oinarritutakoa, horien balore propioak egiaztatzen lagunduko diona.

Hemendik, hainbat bertute ondorioztatzen dira erlijio irakaslearen ekintzari zentzua ematen diotenak eta baita ekintza hori duin bihurtzen dutenak: bere irakaskuntzaren koherentzia bere bizitza propioarekin, elkarriketa zintzoa bere ikasleekin, eta bakoitzaren hezkuntza aukeretan konfiantza. Irakaslearen planteamenduak eta eskaintzek beti ere proposamen kutsua izango dute, inoiz ez inposatzailea, ikasleen aukerak eta usteak errespetatu behar baitira.

3.1. Erlijio katolikoa curriculumean

Erlijioa ikasgaiaren curriculuma giza esperientziatik abiatzen da eta umearen zein nerabearen garapen etapekin modu errespetagarrian lotzen da. Honela, lagundu egiten du hezkuntza etapa bakoitzaren zeharkako ikasketetan.

LOMCEk, 6.1.artikuluan curriculuma definitzen du, irakas-ikasketa prozesuak zehazten eta arautzen dituen osagaiak bezala irakaskuntza ororako.

Curriculumaren garapena 4 bloke nagusitan egituratzen da eta bloke hauek biltzen dute mendeetan zehar pilatu den kristau ezagutza antropologiko guztia. Bloke hauek gizakiaren sen erlijiosotik abiatzen dira eta agerkundearen ikasketarekin jarraitzen dira. Jainkoa gizakiarengan azaltzen da historia zehatz batean. Ikasleak ezagutu behar dituen hainbat pertsona zein egoera azaltzen dira eta horiek mundua hobeto ezagutzeko parada emango diote. Arloaren ardatz nagusia hirugarren blokean egongo litzateke, non agerpena Jesu Kriston eta mezu ebanjelikoan bukatzen den. Azkenik, Elizaren azterketa egiten da Jesu Kristok historian zehar izan duen presentzia kontuan hartuta. Azpimarratu behar da erlijio katolikoaren irakaskuntzak ez duela helburu katekesikorik edo doktrinalik, baizik eta irudiztatu egiten dituela kristauaren bizitza eta kristautasunaren identitatea.

Erlijio katolikoaren lau bloke horietan **kontzeptuak**, **prozedurak** eta **jarrerak** islatzen dira, norberaren eta errealitatearen ezagutza bermatzen dutenak. Honegatik guztiagatik arloaren eduki orokorrek etapa bakoitzean planteatzen dituzten helburuak lortzera bideratuak daude. Curriculum hau ikasleen inguruan dauden elementu kristauz baliatzen da, sinboloak, irudiak, hizkuntza eta beste baliabide batzuk kontuan hartuta, etapa bakoitzean erlijioaren ulermena errazteko. Honela **Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia** garatzen da. Hizkuntza biblikoak eta bere sinbologia eta adierazpenaren aberastasunak, bere zehaztapen kontzeptual, analitiko eta argumentalak konpetentzia horren garapenean lagundu egiten dute.

Erlijio katolikoaren irakaskuntzak bestalde, erantzukizun personal zein sozialaren garapena errazten du beste bertute zibikoekin batera gizartearen ongizaterako. Horrela **Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia** garatuko litzateke. Bestalde, erlijio katolikoak kontzientzia eta adierazpen kulturei zentzua eta balorazio kritikoa erantsten die. Honela, ikasleek inguruko artelanen balorazioa egin ahal izango dute, euren kultura eta beste kultura batzuen ondareak balioetsiz. Mendebaldeko historia eta kultura ezin dira ulertu gertaera erlijiosoa kanpoan uzten baldin bada, gertaera hauek herrien historia kulturean baitaude. **Ekimenerako eta ekiteko espíriturako**

konpetentzia norberaren ezagutzatik, ahalmenetatik, duintasunetik eta zentzutik abiatzen da.

Prozedurazko edukiak alorrean, eduki hauek curriculuma garatzen den bitartean jorratuko dira eta Lehen Hezkuntzako curriculuma erdiesten lagunduko dute. Erlijio katolikoaren prozedurazko edukiek **hurrengo konpetentziak** garatuko dituzte:

- Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia
- Arterako konpetentzia

Oinarrizko prozedurazko edukiak honakoak izango lirateke:

- ❖ *Errealitatearen azterketa*: erlijioaren ikasgaiak dimentsio naturalaren formakuntzan lagundu nahi du, errealitatearen inguruko harriduratik pizten dena eta zentzuaren inguruan galderak egitera eramaten gaituena.
- ❖ *Informazioaren bilaketa, iturri biblikoen maneia eta interpretazioa*: kristautasunaren ikasketak Eskritura sakratuaren eta antzeko testuen maneia eskatzen du.
- ❖ *Hausnarketa kritikoa*: arloaren garapenak ideia nagusien genesisia ezagutzea ahalbidetzen du, bakoitzaren ideia eta sentimenduak sakonki aztertuz.
- ❖ *Norberaren eta besteon sinesmenen azalpen eta argudiaketa adeitsua*: erlijio katolikoaren ikasgaiak konpetentzien formakuntzan laguntzen du, norbanako zein besteon sinesmen erlijiosoak adieraziz eta defendatuz beti ere errespetuzko jarrera batean.

Azkenik, adierazi behar da ikasgai honek jarrerazko edukiak lortzea ahalbidetzen duela beti ere etapa bakoitzeko oinarrizko helburuekin koherentzia mantenduz. Bizikidetzaren oinarrizko araudiak eta baloreak balioestea eta ezagutzea ahalbidetzen du, lanaren eta esfortzuaren kultura garatzen du, norbanakoarenganako konfidantza indartzen du pertsonalitatearen garapen egoki bat garatzeko.

Aurretik aipatu bezala, proiektua Lehen Hezkuntzako 6.mailan eramango da aurrera. Maila eta ziklo hori kontuan hartzen badugu hauek dira aurrera eramango diren edukiak, ebaluazio irizpideak eta ikasketa adierazleak. (ikus 1.1, 1.2, 1.3 irudiak)

Aurretik aipatutakoak LOMCE curriculumean adierazten dira Erlijio eta Moral katolikoaren arloan Lehen Hezkuntzarako. Bestetik aipatu behar da Eusko

Jaurlearitzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 236/2015eko Dekretuan non Oinarrizko Hezkuntza Curriculuma ezartzen den, ez dela Erljio eta Moral katolikoaren ikasgaia espresuki aipatzen, alegia, erlijioa ez da ikasgaitzat hartzen euskal curriculumean. Honen orde, **ikasgai hau balio sozial eta zibikoen** barruan egongo litzateke.

Ikasgai honen Lehen Hezkuntzarako **helburuak** kontuan hartzen baditugu honakoak aipatu ditzakegu:

1. Norberaren nortasuna, ezaugarriak eta esperientziak ezagutu eta finkatzea bere pribatutasun-espazioan, besteen nortasuna errespetatzea eta auto-estimua garatzea, nork bere bizi-tza eta talde-bizi-tza baikortasunez bizitzeko.
2. Nork bere balio-sistema eratzea, oinarri-oinarrizkoa bada ere, bizi-tza-proiektua hartan oinarritzeko. Horretarako, arrazionaltasuna, autorregulazio emozionala eta empatia erabiliko dira, egoerei buruzko iritzi moralak autonomia eta objektibotasun nahikoaz emateko.
3. Autonomiaz eta arduraz jokatzeko eguneroko bizi-tzan, talde-harremanetan, ikasgelan, ikastetxean eta ingurune hurbilean, eta komunikazio- eta gizarte-trebetasunak erabiltzea gizartearen erlazioentzako, haren parte izanik.
4. Herritarren antolatze eta gizartearen parte hartze zer modu dauden jakitea, batez ere Euskal Herrian, erreferentziako talde hurbilenetan parte hartzea (familian, eskolan, auzoan, herrian), eta norberaren ekarpenak eta besteenak aintzat hartzea, besteekin konpartitu eta elkarlanean aritzeko.
5. Bizikidetzako arauak proposatu, egin eta errespetatzea, eta elkarriketa eta bitartekotza erabiltzea gatazkak eraldatzeko, guztien artean ingurune atsegin iraunkor bat sortzeko.
6. Generoa, jatorria, etnia, sinesmenak, desberdintasun sozial eta pertsonalak, orientazio afektibo-sexualak edo beste edozein motatakoak direla-eta sortutako gatazkak identifikatu eta aztertzea, giza eskubideetan oinarritutako elkarbizitza bidezkoa eta berdintasunezkoa eragozten duten jarrerak arbuizatzeko.
7. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak, Haurren eskubideen Konbentzioak eta Estatuko eta EAeko legeriak jasotako eskubideak eta betebeharrak zein diren jakin, bere gain hartu eta babestea, haien oinarri diren balioak identifikatzea, berdintasunezko jarrera sustatzea, diskriminazioa dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak arbuizatzeko, eta, bereziki, emakumeei eragiten dietenak, jendearen eta taldeen portaeren balioespen etikoak egiteko irizpidetzat hartzeko.

8. Ingurumenaren egoeraz jabetzea, kontsumo osasuntsua eta arduratsua egiteko jarrera izatea eta ingurune hurbila errespetatu eta zaintzea (gainerakoak zaindu eta errespetatzea barne, bide-hezkuntzaren bidez), hura kudeatzen arduraz parte hartzeko.

Helburu hauek aztertzen baldin baditugu, esan daiteke Erljioa ikasgaiak aurreko helburuak lortzeko bideak jorratzen dituela. Edukiei erreparatuz, adierazpen motakoak daude (erreferentzia irekiak dituzte, oro har, irakasleak berak zehatz ditzan). Prozedurazko eta jarrerazko edukiek ostera erreferente operatiboak eta balioespenezkoak dituzte. Ikasgai honen oinarria jarrerekin eta prozedurekin lotutako edukiak dira, ikasleek jarrera zibiko-sozialak izan ditzaten.

Ziklo honetarako arlo honek dituen edukiei erreparatuz, bi multzo nagusi bereizten dira. Alde batetik eduki komunak ditugu, non arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak zehazten diren eta, bestalde, bigarren multzo bat non bizikidetza eta gizarte-balioak ezartzen diren. Eduki komunei erreparatuz jarrerazko eta prozedurazko xedeen artean hainbat agertzen dira baina, erlijio ikasgaiari lotuz, badaude batzuk erlazio zuzena dutenak:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.

Bigarren multzoan, bizikidetza eta gizarte-balioak ezartzen dituenak, badaude hainbat azpiatal. Horietako bat Elkarbizitzarako prozedurak eta jarrerak zehazten dituenak da. Horren barruan erlijio ikasgaiarekin zerikusia dituzten honakoak aipa ditzakegu:

- Dilema moralen kasu praktikoak taldean ebatzea.
- Gizarte-balioen azterketa kritikoa.
- Erresilientzia agertzea.
- Hainbat egoerari (egoera pertsonala, akademikoa, lanekoa, soziala) lotutako kasu errealen bilaketa eta azterketa kritikoa, taldean.

3.2. Erlijio katolikoa gaur egun

Gorago adierazi dugu arlo honen inguruan legeek zer aipatzen duten. Hurrengo lerroetan arlo honek eskoletan duen errealitatearen, aurrera eraman den metodologiaren eta proiektu honetan ezarri nahi denaren inguruan arituko gara.

Proiektu honen sarreran aipatu bezala, Espainian azken datuen arabera 2019 urtean 3,3 milio ikasleek jorratu zuten erlijioa ikasgaia, hau da, ikasle guztien %61,98 eskola publikoan, pribatuan eta itunpekoan. Hainbat Hezkuntza eragilek Eskola publikoak laikoa izan behar duela aldarrikatzen daramatzate urteak. El Correo egunkariaren arabera EAEn ikasleak gero eta gutxiago dira eta 10 ikastetxe publikotik 3tan dagoeneko ez da Erlijio ikasgai ematen, ez dagoelako eskaririk. EAEko eskola publikoetan Lehen eta Bigarren Hezkuntzan zeuden 106.000 ikasleetatik 19.703 zeuden Erlijioa ikasgai matrikulatuta (%18a). Datu hauek ikusita nabarmena da ikasgai honen aurrean dagoen interes falta. Datu hauek osatzeko, aipatu behar da erlijio katolikoaren ikasleek astean ikasgai honetako saio bakarra dutela, ordu eta erdiko iraupena duena. Hautazko ikasgai bat da, beraz ez da enborrezko ikasgaia.

Honen inguruko hausnarketa bat eginez, pentsa liteke interes falta honetan zeresan handia duela arlo honetan erabili den **metodologiak**. LOMCEtik eratortzen den Hezkuntza legerian metodologia "irakasleria modu kontzientean eta erreflexiboan antolatzen eta planifikatzen dituen estrategia, prozedura eta ekintza multzoak dira, ikasleriaren ikasketa ahalbidetzen eta planteatzen dituen helburuak lortzea ahalbidetzen duena". Zentzu honetan erlijio katolikoaren ikasgai aurrera eraman behar diren printzipio metodologiko nagusiak honakoak izango dira:

- Ikasleen eginkizunaren aitortpena
- Ikasleen esparru emozional eta kognitiboaren egokitzapena etapa bakoitzaren garapen psikoebolutiboa kontuan hartuta
- Ikasleen ikasketa erritmo eta moduei errespetua
- Dimentsio humanistari begirunea
- Ikasleen jakin-min eta ardurei errespetua
- Hezkuntza ebaluazio irizpideei jarraipena
- Talde lan zein lan kooperatiboaren ikasketaren garapena
- Baliabide teknologikoen hezkuntza erabilera

Bai Lehen Hezkuntzako erlijioa ikasgai eta baita unibertsitatean DECA titulua (erlijio klaseak eman ahal izateko titulua) lortzeko ikastaroan jorratzen den metodologia oso teorikoa da, erlijio kristauaren inguruko hainbat liburu eta Bibliako hainbat pasarte aztertzean oinarritzen da. Baliabide teknologikoei ez zaie erreparatzen, ezta ere

ikasleen jakin minari ere. Jesús M.Gallardo Nietok Edebé argitaletxearentzat egindako ikerketa batean adierazten du testu liburuen erabilera dela ohikoena erlijio klaseetan, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan izan ezik, non testu liburuen erabilera askoz ere murriztuagoa den. Bibliaren erabilera ere oso nabarmena da eta erlijio irakasleen %65ak adierazten du haien klaseen zati handi bat horretan oinarritzen dela. Honetaz aparte sarritan erabiltzen dira beste baliabide batzuk, hala nola, abestiak, filmak, ipuinak edo antzerkigintza. Soilik irakasleen %3ak adierazten du ez duela inongo testu libururik erabiltzen. Curriculumean eman diren aldaketen inguruan, ikerketa honekin jarraituz, irakasle gehienek errezelo handiena diote ebaluazio atalari, haien ustez klasearen kudeaketan lan handiagoa suposatzen duelako. Bestalde, modu onez ikusten dute erlijioa arloa beste arlo batzuekin parekatzea kompetentziak kontuan hartuta.

Carmen Pellicer teologo eta pedagogoak Diario de Sevilla egunkarian egindako elkarrizketa batean adierazten du arrastaka eramaten dugula hezkuntzaren sistema klasikoa, zeina ikasketa memoristikoa oinarritzen den. Horren ordean proposatzen du eskola berrikuntzak ardatz bat izan behar duela, zentzuzko proiektuak garatu behar direla, talde lana sustatu behar dela eta guztion parte-hartzea beharrezkoa dela (eskola, familia eta ikaslearen ingurunea). Gaineratzen du ikasketaren esparruan etengabeko iraultza bat bizitzen ari garela, neurozientziak hezkuntza sistema tradizionalak zalantzan jarri dituelako. Aipatu behar da Carmen Pellicer *Kumi* proiektuaren sortzailea dela (erlijioa proiektuak irakastearen metodologia aurrera eramanez) eta Trilema Fundazioaren sortzailea.

3.3.Erlijio proiektuaren metodologia

Proiektu honetan Erlijio eta moral kristauaren ikasgaia IKTEkin bateratuko dugu. LOMCEk Erlijio eta Moral kristauaren arloarentzat proposatzen duen curriculumarekin bat egingo du, hau da, bertan ezartzen diren printzipio metodologikoak, kompetentzia, eduki eta ebaluazio irizpideak kontuan hartuko ditu proiektu honek. Bat etorriko da, era berean, Hezkuntza Saileko Dekretuak Balio sozial eta zibikoen arloarentzat ezartzen dituen helburuekin ere. Dena den proiektu hau bi helburu nagusietan oinarrituko da:

1. Erlijioa irakasgaiari orain artekoa baino metodologia praktikoagoa eskaintzea
2. Ikasleen motibazioa areagotzea irakasgaia IKTEn bidez landuta.

LOMCEk aipatzen dituen printzipio metodologikoetako azkenak baliabide teknologikoen hezkuntza erabilerari egiten dio erreferentzia. Printzipio metodologiko honetan oinarrituko da proiektua (beste printzipioak ahaztu gabe). 236/2015 Dekretuak oinarritzko zehar konpetentzien artean *Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentziari* egiten dio erreferentzia. Azken osagai honi erreparatuz, alegia, komunikazio digitalerako konpetentziari, honako elementuak landu beharko dira konpetentzia digitala egoki garatzeko: (236/2015 Dekretutik hartuak)

- **Informazioa:** informazioa bilatzeko eta Interneten nabigatzeko estrategia ugari erabiltzeko gai izan behar du norberak, eta jasotako informazioa irazten eta kudeatzen jakin behar da. Horrez gainera, sarean informazioa partekatzeko guneetan nori jarraitu jakin behar da, kritikoa izan behar da aurkitutako informazioarekin, eta informazio horren baliozkotasuna eta sinesgarritasuna egiaztatu behar da.

Fitxategiak, edukiak eta informazioa gordetzen eta etiketatzen jakin behar da, zehaztuta izan behar ditu norberak haiek biltegitatzeko estrategiak, eta gordetako informazioa eta edukiak berreskuratzen eta kudeatzen jakin behar da.

- **Komunikazioa:** linean komunikatzeko tresna sorta zabala erabili behar da (mezu elektronikoak, txatak, SMSak, berehalako mezularitza, blogak, mikroblogak, foroak...); hau da, norberaren asmoari hobekien erantzuten dioten komunikazio digitaleko moduak eta modalitateak hautatzen jakin behar da. Finean, gai izan behar du norberak jasotako komunikazio motak kudeatzeko eta hartzailearen arabera egokitzeko komunikazioko erak eta modalitateak.
- **Edukiak sortzea:** askotariko formatu, plataforma eta ingurunetan eduki digitalak sortzeko gai izan behar du norberak, eta tresna digitalak erabiltzen jakin behar da produktu multimedia orijinalak sortzeko eta lehendik dauden edukiak uztartu eta eduki berriak sortzeko; eta hori guztia egin behar da jakinda nola aplikatzen diren (zer erabilera eta erreferentzia duten) informazioei eta baliabideei dagozkien lizentziak.

Horrekin batera, programazioaren printzipioak ulertu behar dira eta programa baten oinarrian zer dagoen jakin behar da, programa informatikoetan, aplikazioetan eta gailuen konfigurazioetan aldaketak egiteko.

- **Segurtasuna:** sareko arriskuak eta mehatxuak ulertu behar dira, eta norberaren gailu digitalak babesten eta segurtasun-estrategiak eguneratzen jakin behar da.

Era berean, pribatutasunarekin lotutako gaiak aintzat hartuta eta datuak nola biltzen eta erabiltzen diren kontuan hartuta, jakin behar da nork bere burua mehatxuen, iruzurren eta jazarpen zibernetikoen aurrean babesten, norberaren datuak ganoraz gordeta eta besteen pribatutasuna errespetatuta. Era berean, teknologien erabilerak dakartzan osasun-arriskuak ulertu behar dira; alde horretatik, ergonomiaren alderdiak landu behar dira, eta bereziki nabarmendu behar da informazioaren teknologien gehiegizko erabilerak asaldatu egin ditzakeela banakoaren portaera eta bizikidetzak, eta mendekotasuna eragin dezakeela. Horrez gain, teknologiaren erabilerak ingurumenarekiko dituen alderdi onuragarriak eta kaltegarriak azpimarratu behar dira.

- **Arazoak konpontzea:** gerta daitezkeen arazo tekniko errazak hautematea eta horiek konpontzeko gauza izatea dakar dimentsio honek.

Era berean, gai izan behar da beharizan teknologikoak aztertu, ezarritako helburuari dagokion tresna egokia aukeratu eta atazak ebazteko, eta hori guztia balizko irtenbideak eta tresna digitalak modu kritikoa ebaluatuta egin behar da.

Teknologia digitalak erabiltzeko gauza izan behar du norberak, produktu berritzaile-sortzaileak egiteko eta arazo kontzeptualak konpontzeko, bai banaka, bai lankidetzan.

Lehen Hezkuntzako 6.mailako ikasleek Konpetentzia digitalen IRTEERA PROFILA kontuan hartuta, honako gaitasunak eskuratu beharko dituzte DBHra ailegatu aurretik. (ikus 1.4 irudia)

Aurretik aipatu bezala, lan honetan deskribatutako ibilbidean proiektuak lan egingo da. Hiru proiektu aurrera eramango dira, hiruhilabete bakoitzeko bat. Proiektu bakoitzak amaieran erronka edo produktu bat aurrera eramatera eramango gaitu. Hurrengo lerroetan taula ezberdinetan azalduko da proiektu bakoitzean burutuko dena eta bertan planteatzen diren jarduerak ezberdinak. Birgogoratzea, plataforma digitala erabiliko dela (moodlea) eta ez dela testu libururik erabiliko, Bibliaren erabilpena kenduta.

1.Unitatearen izena: Zelako emozioa!	Denboralizazioa: 1.Hiruhilabetea (23 ordu)	Maila: LH 6
Proposamenaren justifikazioa: Askotan ez gara konturatzen gure ez-hitzezko komunikazioak daukan garrantziaz. Egunean zehar gure gogoia aldatuz joaten da eta horren zergatiaz askotan ez gara konturatzen. Badirudi bestalde gure emozioak adieraztea ekidin nahi dugula horrek ekartzen dituen ondorio negatiboekin. <i>Errituen</i> bitartez emozio ezberdinak adierazi daitezke, ezkontzetan, elizkizunetan, bataioetan, etab. Erlijioen baitan ematen diren erritu ezberdinak Jainkoarekin harremanetan jartzeko modu bat da.		
Zer egingo da: <ul style="list-style-type: none"> - Sentimenduak eta emozioak ezagutzea eta adieraztea. - Erlijio-errituak eta horien sinboloak ulertzea - Bizitzaren sentzuaz eta esanahiaz hausnartzea 		
Amaierako erronka: Ikasleek aktoreen rola hartuko dute eta taldeka antzerki obra bat sortu beharko dute. Antzezpen horretan unitatean landutako erritu, ideia edo sentimendu ezberdinak antzeztu edo sortu beharko dituzte beti ere ahotsa erabili gabe.		
Edukiak: 1. Blokea (Gizakiaren zentzu erlijiosoa) <ul style="list-style-type: none"> · Gizakiaren osotasuna Jainkoarekin daukan erlazioan dago. 		
Ebaluazio irizpideak: 3. Kultura ezberdinetako ikurrak interpretatzea, non nabarmentzen den gizakiaren osotasuna Jainkoaren erlazioarekin lortzen dela.		

Lorpen estandarrak:

3.1. Jabetu egiten da eta azaltzen ditu zergatik lurperatzeak, margolanak, errituak eta ohiturak gizakiak dibinitatearekin daukan erlazioaren zeinu diren.

Jarduerak:

- ★ Jarduerekin hasteko ikasle bakoitzak ikastaroaren FOROAN haien aurkezpena egingo dute eta azaldu beharko dute *antzerki-obra* batean edo *film* batean parte hartuko balute zein pertsonaia antzeztea gustatuko litzaiokeen eta zergatik. Modu honetan ikasle guztiek besteen iritzia entzun ahal izango dituzte. Foroaren bitartez ikasleen parte hartzea eta haien arteko interakzioa sustatu nahi da. Oso jarduera interesgarria izan daiteke adin honetako ikasleek ohituta daudelako sare sozialetan edo txataren bitartez kontaktuan egoten.



- ★ Bigarren jardueran eskatuko diogu ikasle bakoitzari pentsatzea norekin gustatuko litzaiokeen antzerki-obra bat egitea baina ikaskide horiek berak ez dituen gaitasun ezberdinak izan behar ditu. ZEREGINA izango da. Ikasleak word dokumentu batean taula bat egin beharko du eta bertan hiru zutabe ezberdinetan ikaskidearen izena idatzi beharko du, beste zutabe batean zein pertsonaia hartuko lukeen ikaskide horrek idatzi beharko du eta azken zutabean idatzi beharko du zein gaitasun dituen ikaskide horrek berak ez dituen.




- ★ Hurrengo jardueran taldeak sortuko dira. Talde guztietan neskak eta mutilak egongo dira. Behin taldeak sortuta adostu beharko dute zein izango den ikasle

bakoitzaren rola (aktoreez gain, gidoilaria eta musika arduradun bat egongo da. Pentsatu beharko dute zein material behar izango duten eta prozesuan zehar sortzen diren arazoak zelan bideratuko dituzten.). Behin adostuta ordenagailu baten web-kamera erabilia bideo bat grabatu beharko dute azaltzen bakoitza zein rol izango duen eta zer ekarpen egingo dion taldeari. Bideo hori moodleera igoko dute.



- ★ Sentimenduen esanahia: jarduera honetan irakasleak audio bat grabatu du. Audio horretan sentimendu ezberdinen definizioak azalduko ditu.(poza, tristura, beldurra, gorrotoa, maitasuna...). Ikasleak audio hori entzun beharko du. Ondoren GALDETEGI jarduera baten bitartez ikasleari sentimendu bat emango zaio eta bere esanahia zein den aukeratu beharko du. Hiru aukera izango ditu eta egokia bat izango da. Moodleen galdetegiaren bitartez mota ezberdinetako sortu eta sailkatu daitezke eta gero plataformara igo. Gainera aukera ematen digu irakasle moduan jakiteko zeintzuk ikasle saiatu diren galdetegia betetzen eta nortzuk ez. Kasu honetan aukera anitzeko galdera izango litzateke.




- ★ Hurrengo jardueran emotikonoekin eta sentimenduekin lan egingo da. Ikasle bakoitzak power point baten bidez diapositiba bakoitzean emotikono bat aukeratu beharko dute sentipen bat eragiten dietena. Ondoren azaldu beharko dute zein egoeretan sentitzen duten haiek sentimendu hori. Power pointa erabiltzen nahiko ohituta daude ikasleak eta gainera beste arlo batzuetarako egiten dituzten aurkezpenetarako ondo etorriko zaie.



- ★ Behin jarduera hori eginda ikasle bakoitza bere aurkezpena egingo du klasekideen aurrean arbel digitala erabiliz. Aurkezpen horiek grabatu egingo dira eta moodle ikastaroan igoko dira. Aurkezpenak plataformara igotzea, ikasle bakoitzak bere burua aztertzeko parada emango die, askotan feedback onena bakoitzaren lana zuzenean ikustea eta aztertzea izaten da.




- ★ Bibliarekin solasean: taldeka *Mateo 10:27* pasartea irakurriko dute eta taldean hitz horien inguruko hausnarketa egingo dute.
- ★ Ondoren ikasle bakoitzak *paint* programa erabiliz pasarte horretan ulertu dutena marraztu egingo dute eta moodle-era igoko dute.



- ★ Bibliarekin solasean: taldeka Juan 13:2-17 pasartea irakurriko dute, non Jesusek bere ikasleei oinak garbitzen dizkien. Egoera horren inguruan hausnarketa egin ostean, ikasle bakoitzak GALDETEGI bat bete beharko du, galdera hauei erantzunez:

- Nola azalduko zure hitzekin Jesusen keinua?
- Zer adierazi nahi zuen keinu horrekin?
- Zure egunerokoan holako keinuren bat ikusi edo egin duzu?
- Besteek zurekin zein keinu egitea gustatuko litzaizuke?

Kasu honetan erantzuna deskribapen motakoa izango litzateke.



★ Klasean *Wonder* pelikula ikusiko da. Pelikula honen bitartez ezberdintasunak, auto-kontzeptua eta errespetua landuko da. Hasiera batean ikasle bakoitzari bi koloretako kartulina emango zaio. Kolore batean ikasle bakoitzak idatziko du zer den bere izaeratik gehien gustatzen zaiona eta beste kartulinan zer den bere izaeratik batzuetan ezkutatu nahi izango lukeena. Ondoren, bi kartulina zati horiek gelako paretan itsatsiko dira. Jarduera oso bisuala izatea nahi da konparaketak errazago egin ahal izateko. Horregatik erabiliko dira bi kolore. Ikasleek edozein momentutan papertxo horiek irakurri ahal izango dituzte eta besteen sentimenduez jabetu. Momentu oro ikasle bakoitzaren anonimataua babestuko da, eta papertxo bakoitzean ez da ikaslearen izena agertuko.



★ **Tomas Akinokoaren Teologia Naturala:** Tomas Akinokoak Jainkoaren existentzia frogatzeko kausen teorian oinarritutako bost argudio erabili zituen: bost bideak. Bost bide horien inguruko testu bat irakurri beharko dute. GALDETEGI motako jarduera bat izango da. Lehen galderan testu bat agertuko

zaie irakur dezaten. <https://irakasleikasle.wordpress.com/2016/01/16/tomas-akinokoa-jainkoaren-existentziaren-frogak/>

- ★ Ondoren, gainontzeko galderei erantzun beharko diete. Galdetegi horretan definizio ezberdinak eta bost bideen izenak agertuko dira. Kasu batzuetan emandako definizioa ez dator bat bidearen izenarekin, beraz kasu honetan planteatzen den galdera mota egia/gezurra izango da. Modu honetan erantzuna edo feedbacka zuzenean jasoko du eta horrek bere motibazioan eta ikasketan eragin positiboa izan lezake.

1. Galdera-mota estandarrak
1.1. Aukera anitzeko galdesak
1.2. Aukera anitzeko kalkulatu erantzun galdetegi
1.3. Aukeratu fita galdetegi
1.4. Concepts Map
1.5. Essay and Open Matching
1.6. Espelgeburra
1.7. Ditzeguz
1.8. Erantzun laburrek duzaz lotu
1.9. Erantzun laburreko galdetegi
1.10. Hartu eta eraman inulins
1.11. Hartu eta eraman markazaleak
1.12. Hartu eta eraman inulins
1.13. Kalkulatuak
1.14. Kalkulatuak galdetegi sinplea
1.15. Lotu
1.16. Tzertatutako erantzunak (Clotz)
1.17. Zentzuzkoa

- ★ Hurrengo jardueran ikasleak modu laburrean azaldu beharko du zer den *metafisika* eta Tomas Akinokoaren figura. Horretarako hainbat informazio iturritan kontsulta egin beharko du eta ondoren bai web-kamera edo mugikorraren bitartez ahozko azalpen bat egin beharko du eta moodleera igo ZEREGIN jarduera bat erabilita.



- ★ Errituak: Jainkoarekin esperientzia ezberdinak ditugunean erritu ezberdinen bitartez, Jainkoarekiko dugun maitasunaren isla erakusten ari gara, hau da, erritu horren bitartez, Jainkoarekin esperientzia bat bizitzen ari gara. Erritu horietako batzuk *bataioa* edo *jaunartzea* izan daiteke. Ezagutzen ahal dituzue

Jainkoarekin edo Elizarekin zerikusia daukaten beste erritu batzuk? ZEREGIN jarduera honetan ikasleek erritu ezberdinen argazkiak aurkitu beharko dituzte interneten eta ondoren erritu bakoitzaren esanahia idatzi beharko dute. Jarduera honen bitartez ikasleen esperientzia eta egunerokoa kontuan hartu nahi da eta gure fedea hobeto ezagutzeko parada emango digu.





- ★ Beste erlijioetako errituak: oraingo honetan taldeka lan egingo da. Talde bakoitzari erlijio bat egokituko zaio (erlijio katolikoa, budismoa, islama, judaismoa). Taldeka, suertatu zaien erlijioaren inguruko erritu ezberdinak aurkitu beharko dituzte bai interneten eta bai testu liburuetan. Ondoren arbel digitalaren laguntzaz beste taldeen aurrean erritu horien nondik norakoak azaldu beharko dituzte eta azkenik ahal duten heinean erritu horren antzezpena egin behar izango dute. Jarduera hau oso osoa eta motibagarria izan daiteke. Alde batetik ikasleen ezagutza handitu nahi da, gure inguruan bizi diren pertsona ezberdinen sinesmen inguruan jabetuz. Jakitun izan behar dute gure gizartean erlijio ezberdinak elkarrekin bizi direla. Bestetik baliabide teknologikoen erabilera sustatuko da arbel digitalaren bitartez eta azkenik hitzeko eta ez-hitzezko komunikazioa garatuko da aurkezpenaren eta antzezpeneren bitartez.




- ★ Jainkoa eta kultura: munduan zehar badaude hainbat Tenplu megalitiko errituekin zerikusi handia dutenak, horietako bat Stonehenge da. ZEREGIN honetan Stonehengeren inguruko azalpen bideo bat ikusi beharko dute. <https://www.youtube.com/watch?v=3QxRJ0iEuKg>




- ★ Behin bideoa ikusita *paint* programa erabilia eta bakarrik laukiak, zirkuluak eta hirukiak erabiliz haien silueta marraztu beharko dute Stonehenge barruan egongo balira bezala irudikatuz. Ondoren marrazkiaren alboan idatzi beharko dute nolako sentipenak izango lituzketen Tenplu megalitiko horren barruan egongo balira. Fitxategia Moodle plataformara igoko dute. Aurreko bi jardueren bitartez erlijioa eta kultura erlazionatu nahi ditugu askotan ez garelako konturatzen historiaurreko erritu asko zertarako egin ziren eta bere esanahia zein den. Bestalde marrazkiaren bitartez ikasleen pentsamendu bisuala garatu nahi dugu irudi geometriko abstraktuak erabiliz. Honek arlo matematikoan ere eragin positiboa izan lezake.



- ★ Eragin espirituala: Alex Grey margolariak bere obretan espiritualtasun handia erakusten du. Kolore biziek eta erabiltzen dituen sinboloek sakontasun eta transzendentzia handia erakusten dute. Honek pertsona askorengan eragin handia izaten du. Ikasleek hurrengo bi obrak aztertuko dituzte. Bi obra hauek arbel digitalean erakutsiko dira.



- ★ Ikasleek bi obra horiek aztertu beharko dituzte. Hausnarketa bat egin ostean ikasle bakoitzak GALDETEGI bat bete beharko du eta galdera honi erantzuna ematen saiatuko da?
 - Zein zerikusi dute obra hauek aurretik ikusitako erritu ezberdinekin?




★ Ondoren beste galdera bati erantzun beharko diote, kasu honetan erantzun laburrekoa. Galdetuko diegu sentimendu edo emozio bat isladatzeko zein kolore erabiliko luketen:

- Harridura: zein kolore
- Poza: zein kolore
- Tristura: zein kolore
- Maitasuna: zein kolore
- Beldurra: zein kolore

Jarduera honen bitartez nahi dugu ikasleak bere barnera begiratu dezala eta jabetu dadila kultur obrek gure sentimenduetan eta emozioetan eragin zuzena dutela. Honela, museo batera joaten direnean edo kultur obra bat aztertzen dutenean beste modu batean egingo dute.

★ Erljioa eta sare sozialak: jakin badakigu sare sozialek ikasleen egunerokoaren parte garrantzitsu bat betetzen dutela. Pertsona askok bere iritzia edo pentsamendua azaltzeko sare sozialak erabiltzen dituzte ahalik eta pertsona gehienengana ailegatzeko. Horietako bat Twitter da. Erljio katolikoaren ordezkari garrantzitsu askok honako erreminta erabiltzen dute haien mezua helarazteko. Horietako bat Frantzisko aita santua edo Espainiako Konferentzia Episkopala dira. Ikasleek horien hainbat tweet ikusiko dituzte arbel digitalean.



- ★ Ondoren azalduko diegu gehienez tweet batean 140 karaktere idatzi daitezkeela eta karaktere bat zer den azalduko diegu. Ondoren eskatuko diegu ikasleei aita santuaren papera hartzeko eta kristau komunitate osoari mezu bat helarazteko tweet baten bidez. Tweet hori ikasleek Moodleko FOROAN partekatuko dute. Ondoren arbel digitalean ikasle guztien tweet-ak agertuko dira eta ikasle bakoitzak tweet horren zergatia adieraziko du. Jarduera hauek oso motibagarriak izango dira oso ohituak daudelako txatak erabiltzen, smsak idazten, etab. Foroaren bitartez ikasleen parte hartzea eta haien arteko interakzioa sustatu nahi da. Bestalde ohartuko dira sare sozialen erabilpena zein errotua dagoen gizartearen esparru guztietan eta zelako oihartzuna izan dezaketen idazten diren mezuek.



- ★ Azken erronkaren (antzerki obraren) prestaketarekin murgilduko dira taldeka. Taldean partaide bakoitzak unitatean zehar jaso dituen ideiak, izan dituen bizipen eta sentimenduak partekatuko ditu eta jakinda hitzik gabeko antzeppen bat egin behar dutela pentsatu beharko dute zein sentimendu isladatu nahi izango duten eta horretarako zein keinu edo erritu erabiliko duten.
- ★ Ideia ezberdinak behin jasota obraren gidioa idatzi beharko dute. Bertan ikasle bakoitzaren rola zein den zehaztu beharko dute, zenbat denbora behar izango duten, zein material, zenbat aldiz entsaiatu beharko duten, etab. Gidoi hori talde bakoitzak email bitartez irakaslerekin partekatu beharko du.



- ★ Bukatzeko, antzeppenaren eguna heldu da. Talde bakoitzak bere antzeppena egingo du klasekideen aurrean. Beste taldeek obra ikusten dutenean horren balorazioa egingo dute. Horretarako item ezberdinak izango dituzte taula batean. Taula hori Moodleetik deskargatu beharko dute. Nota bat jarri beharko

diote item bakoitzari (1etik 5era bitartean). 5 notarik altuena izango da. X bat jarri beharko dute.

Osagaiak	1	2	3	4	5
Antzezenaren mezua ondo ulertu da.					
Taldekideen arteko elkarlana egokia izan da.					
Antzezenak emozio edo sentimendu ezberdinak sorrarazi dizkigu.					
Erabilitako materialak errepresentazioan lagundu egin du.					
Obraren nota orokorra					

Ebaluazioa:

Auto-ebaluazioa

Kasu honetan ikasle bakoitzak unitatean zehar burututako lana ebaluatu egingo du eta baita azken erronka ere. Baliabide teknologikoen erabilera ere ebaluatu egingo da, kasu honetan Moodlearen ingurukoa. Ikasleak galdetegi bat bete beharko du honako galderen inguruan:

- Gustura sentitu zara unitate honetan zehar?
- Zer da unitate honetan zehar ikasi duzuna eta landutako gaien inguruan zer ikastea gustatuko litzaizuke?
- Zein hobekuntza proposatuko zenioke zure buruari?
- Eta unitateari?
- Kristautasunaren zein alderdi ulertzen dituzu orain hobeto?
- Antzezpenean zein uste duzu izan dela taldekideei egin diezun ekarpen nagusia?
- Eta taldekideek zuri?
- Moodlearen erabilera kontuan hartuta zeintzuk dira gehien gustatu zaizkizun jarduerak?
- Eta gutxien?

- Moodlearekin egin behar izan dituzun jardueraren batean arazo deigarririk izan al duzu?
- Zein nota jarriko zenioke zure buruari? (1etik 5era)

Koebaluazioa

Kasu honetan talde lana ebaluatuko da, ez bakarrik azken erronkarena baizik eta unitatean zehar taldean burutu diren jarduera guztiena. Horretarako balorazio-taula bat bete beharko dute. X bat jarri beharko dute zutabe bakoitzean.

Osagaia	Oso ondo	Ondo	Hobetu beharra
Taldekide guztien konpromezua egokia izan da.			
Taldekide guztien artean errespetua nagusi izan da.			
Taldekide guztien iritziak entzun eta errespetatu dira			
Taldekide batek laguntza behar izan duenean laguntza hori ematen saiatu gara.			
Talde lanaren balorazio orokorra			

Behaketa zuzena

Ebaluazio hau irakasleak ikasleari egiten diona izango da. Alde batetik unitatearen ebaluazio irizpideak bere lorpen adierazleekin ebaluatuko dira eta bestetik komunikazio digitalaren konpetentziak garatu dituen edo ez ebaluatuko da. Irakasleak balorazio-taula bat bete beharko du.

Osagaia	Bai	Ez	Batzuetan
Jabetu egiten da eta azaltzen ditu zergatik lurperatzeak, margolanak, errituak eta ohiturak gizakiak dibinitatearekin daukan erlazioaren zeinu diren.			
Kultura ezberdinetako ikurrak interpretatzen ditu.			

Sentimendu eta emozio ezberdinak ezagutzen eta adierazten ditu.			
Bizitzaren zentzuaz eta esanahiaz hausnarketak egiten ditu.			
Komunikazio digitala:			
Informazio iturri ezberdinak kontsultatzen ditu eta informazio hori modu egokian kudeatzen du.			
Informazioa ikaskideekin zein irakaslearekin partekatzeko gai da.			
Informazio horren balioa eta sinesgarritasuna egiaztatu egiten du			
Linean komunikatzeko gai da foroen bitartez.			
Komunikazio mota ezberdinak kudeatzen ditu (foroetako mezuak, tweet-ak...)			
Produktu digital originalak sortzen ditu (power point...)			
Teknologiaren erabilerak osasunean izan ditzakeen ondorioez jabetzen da.			
Sareko arriskuak eta mehatxuak ulertu egiten ditu, adibidez tweet batek ekarri ditzakeen ondorioak.			
Jarduera batean izan ditzakeen arazo teknikoek jabetzen da eta erantzun bat ematen saiatzen da.			
Teknologia digitalak bai bakarka zein lankidetzan erabiltzeko gai da.			

Bukatzeko, irakasleak baliabide digitalaren (Moodlea kasu honetan) balorazioa egingo du. Unitatean zehar planteatutako jarduerak eragin positibo edo negatiboa izan duten

eta hobekuntza posibleak planteatuko ditu etorkizuneko unitateei begira. Irakasleak idatziz honako galderari erantzun beharko die:

- Moodle plataforman planteatu diren jarduerak zer nolako erantzuna jaso dute ikasleen partetik?
- Moodle plataforman planteatu diren jarduerak aurretik planteatutako helburuak betetzeko balio izan dute?
- Planteatutako jarduerak anitzak izan dira eta talde lana zein bakarkako lana sustatu dute?
- Ikasleei jarduerak egiteko emandako denbora nahikoa izan da?
- Zeintzuk izan dira unitate honetan zehar plataforma honek izan dituen bertute eta gabezia nagusiak?
- Zein hobekuntza egingo zenuke datorren unitateari begira?

<p>2. Unitatearen izena: Entzun berri hau anaiok!</p>	<p>Denboralizazioa: 2.Hiruhilabetea (17 ordu)</p>	<p>Maila: LH 6</p>
<p>Proposamenaren justifikazioa:</p> <p>Antzinatek hainbat pertsonak hitzaren edo musikaren bitartez beraien mezuak helarazi dizkiote gizarteari, balioak transmititzen, bidegabekeriak salatzen, etab. Gure aiton-amonak izan daitezke edo tribuetako zaharrenak, baina baita bertsolariak edo rap kantariak ere. Horretaz Israelgo herriak asko daki. Hasieran basamortuan 40 urtez ibili ondoren Moises lege-emaile eta profetak israeldarrak Egiptotik atera era Israelgo herrira eraman zituen. Ezagutza horiek “jakindurizko liburuetan” jasota daude baina kulturak ere Jainkoaren berri ematen digu filmetan, abestietan edo margolanetan.</p>		
<p>Zer egingo da:</p> <ul style="list-style-type: none"> · Ahozko transmisioaren garrantziaz jabetu · Jakinduriazko liburuek transmititu nahi digutena ulertu · Bidegabekeria ezberdinak aztertu: bullyinga, etab. · Bakoitzaren abileziak ezagutzea eta adieraztea. 		

Amaierako erronka:

Ikasleek bakarka ahozko hizkuntza erabiliz gizarteari mezu bat helaraziko diote. Kasu honetan euskal kulturarekin bat eginez ikasleek bertso bat sortu beharko dute, bertsolariak bailitzan. Bertso horretan gure gizarteko bidegabekeria ezberdinak salatuko dira.

Edukiak: 2. Blokea (Agerkundera: Jainkoak historian esku hartzen du)

- Israelgo herria Jainkoaren ezagutzaren jasotzaile.
- Jakinduriatzko liburuek gizateria aberasten dute.

Ebaluazio irizpideak:

1. Jakinduriatzko liburuek historian zehar izan duten garrantziaz jabetzea eta horien aberastasuna estimatzea.

Lorpen estandarrak:

- 1.1. Jakinduriatzko liburuetan biltzen diren adierazpenak identifikatzea eta baloratzea pertsona aberasten eta hobetzen dutela.
- 1.2. Herritar jakinduria Israelgo herriaren jakinduriaren adierazpenekin batera ikertzen eta egiaztatzen ditu epai pertsonal bat emanez.

Jarduerak:

- ★ Unitate honetan irudi edo sinboloekin lan egingo dugunez eskatuko diegu interneten beraien izaerarekin bat datorren irudi edo sinbolo bat bilatu eta Moodleen ikasle profilaren irudi bihurtu dezaten. Jarduera honen bitartez ikasleak ohartuko dira irudiek eta sinboloek esanahi bat dutela eta mezu bat transmititzen dutela, bakoitzarentzat esanahi ezberdin bat izango duena.



- ★ Behin irudi edo sinbolo hori aukeratuta eta profil moduan jarrita, aukeraketa horren zergatia Moodleko FOROAN partekatuko beste gelakideekin. Foroaren bitartez ikasleen parte hartzea eta haien arteko interakzioa sustatu nahi da.



- ★ Eskatuko diegu ikasleei kezkatzen dituen gizarte arazo batean pentsatzea. Behin arazoa pentsatua arazo horri aurre egin diezaiokeen lelo bat asmatu beharko dute eta kartulina zati batean idatzi.




- ★ Behin leloa idatzita gelako paretan itsatsiko da eta ikasle guztiek bestean leloak aztertuko dituzte. Leloen txokoa deituko diogu. Kartulinetan ez dira ikasleen izenak agertuko. Ondoren bozketa bat egingo da eta lelo guztien artean boto gehien daukana bihurtuko da gelako leloa. Ezin izango dute bakoitzak bere leloa bozkatu. Jarduera honen bitartez besteen iritziak errespetatzen eta balioa ematen saiatuko gara, azken finean pertsona bakoitzak gizarte kezka ezberdinak izan ditzakeelako.



- ★ Unitate honetan Moodle plataformarekin lan egiten da. Hurrengo jardueretan baliabide digitalekin zerikusi zuzena duen bullying mota bat aztertuko da: ziberbullyinga.



- ★ Jarduera honetan, bakoitza bere ordenagailuarekin “Pantallas amigas” web gunean sartuko da. Hasteko, “Pantallas amigas” erakundeak sustatzen duena aztertuko dugu. Ondoren ziberbullying atalera joango gara eta honen inguruko bideo bat ikusiko dugu. Bideoa behin ikusita ikasle bakoitzak bere Moodlean aurretik irakasleak haiekin partekatu duen pdf bat irakurriko du. Pdf hori ziberbullyinga saihesteko gida baten ingurukoa da. Gida hori Arartekoa, “Pantallas amigas” eta edexek sortutakoa da.




- ★ Ondoren, ludikotasuna bultzatu asmoz “Pantallas amigasek” sortutako hainbat jolas egingo dira bakoitzak bere ordenagailuan.

Historio animatua: "Ziberbullyinga saihesteko"
 Eracartzalea dekadurak tokian tokian erasotzeko prest dago. Van Tekling banpro-ehiztari ospetsuak egingo du jaiari buruzko sarrera, eta "ziberbullyinga saihesteko" bideoa bideoa bideoa erakutsi behar du. Ondoren, benetan gertatutako lau istorio argitzen dira. Bero protagonisten aduragabekeraren bat egiten dute. Zein akzio egin zuten asmatu behar da.

Jokoa: "Erantzun egokia"
 Jolaski mugikor bidezko mezuen bitarteketa simulatzen da. Zeinuz SMS sistema dira, eta erantzun egin behar dira. Honezaz, daukan erantzunen arabera baliagarriak behar dira. Erantzun hori erasoak saihesteko egokia den ala ez, aldatu egingo da aldatutakoaren eta eraso jasandakaren (jokalarai) itera.

Jokoa: "Aurkitu ziberbullyinga"
 "Ziberbullyinga" ziberbullying-a gertatzen den lekuan agertuko dira: Internet, telefono mugikor edo on-line jokotara, hain zuzen. Ziberbullyinga aurkitu ondoren, hain zuzen, Ziberbullyinga saihesteko bideoa bideoa erakutsi behar da. Erantzun gure aldekoa izango da, baina eta erantzun egokia ematen badiegu galderei.

- ★ Hurrengo jardueran (GALDETEGI motakoa) eskatuko diegu ikasleei aurreko arazoaren inguruko hausnarketa bat egitea eta idaztea zer egingo luketen beraiek edo zer egin beharko lukeen gizarteak arazo honi aurre egiteko. Deskribapen jarduera izango litzateke.



- ★ Oraingoan, arbel digitalean “Egiptoko printzearen” pelikula jarriko dugu guztion artean ikusteko. Pelikula hau “Irteeraren liburuaren” adaptazio bat da eta bertan Moisesen bizitzaren jarraipen bat egiten du Egiptoko printze bat izatetik hebrear esklaboen irteera bideratzen duen arte.



- ★ Behin pelikula ikusita ikasleak taldeka banatuko dira eta bi galdera hauei erantzuna ematen saiatuko dira:
 - Zein da herri hebreoaren egoera pelikula honetan?
 - Egoera honek ba al dauka zerikusik aurretik ikusitako gaiarekin? Alegia, jazarpenarekin? Zergatik?

Behin taldean erantzunak jasota, Moodleko FOROAN taldearen erantzunak partekatuko dituzte. Foroaren bitartez ikasleen parte hartzea eta haien arteko interakzioa sustatu nahi da eta bestetik taldeka lan egiteak besteen iritziak eta ikuspuntuak entzuteak eta errespetatzea dakar.

- ★ Hurrengo jardueretan abesti bat eta bertso bat entzungo dituzte ikasleek. Alde batetik Chambaoren Voces abestia eta Amets Arzallusen bertso bat (2009ko bertsolari txapelketakoa) *autobusa* gaitzat duena.

<https://www.youtube.com/watch?v=U771qzllwrs>

<https://www.youtube.com/watch?v=tcBeVDNRs7U>




Bertsoaren kasuan, ikasleek GALDETEGI motako jarduera batean, bertsoa entzuten duten bitartean lerroetan agertzen diren hutsuneak bete beharko dituzte. Horretarako bizpahiru aldiz entzungo dute bertsoa. Zuzenketak egiteko bertsoa berriro ere entzungo dute eta zuzentzeko aukera izango dute.



★ Bakarka aurreko bertsoaren eta abestiaren inguruko hausnarketa egingo dute. Horretarako audio bat grabatu beharko dute eta plataformara igo. Bi galdera hauei erantzuna eman beharko diete:

- Zeintzuk gai jorratzen dira edo zer salatzen da bertsoan eta abestian?
- Nola egingo zenieke aurre egoera horiei?




★ Hurrengo jardueran bakoitzaren bizipen pertsonaletan arreta jarriko dugu. Ikasle bakoitzak ikaskideen aurrean hunkitu duen egoera bat azalduko du.

- Zer gertatu zen:
- Nola sentitu zen:
- Nola gainditu zuen:
- Egoera horretatik zer ikasi zuen:



Ikasleentzat oso jarduera aberasgarria izan daiteke, bestean esperientziez aberasten garelako eta jakitea nola bere ikaskide ezberdinek aurre egin dieten egoera ezberdinei oso garrantzitsua izan daiteke.

- ★ Jainkoa eta kultura: aurreko jardueretan aztertu dugu musika eta bertsolaritza (ahozko literaturak) mezuak helarazteko modu bat direla. Agian hedatuena. Seguru ikasleek kulturako beste pertsonaia asko ezagutzen dituztela eta gainera gizarteari mezu ezberdinak helarazten dizkiotenak. Jarduera honetan kulturako pertsonaia bat aukeratu beharko dute (abeslaria, raperoa, bertsolaria, etab) eta ikaskide bati emailez pertsonai horren aurkezpena bidaliko diote eta abesti baten audio edo bideoa bidaliko diote, horren letra gehituz. Jarduera honen bitartez informazioa partekatzea jorratuko dugu




- ★ Hurrengo jardueran aztertuko da nola komunikabideek edo historiako pertsonaia ospetsu askok Jainkoaren inguruko aipamenak egin izan dituzten. Mezu horiek izugarritzko oihartzuna izan dute kasu batzuetan. Ikasleak aipamen ezberdinak aztertu egingo ditu. Ondoren historiako pertsonai bat edo erakunde bat aukeratuko du, bere argazkia kartulina batean itsatsiko du eta bere alboan berari pertsonai horrek edo erakunde horrek Jainkoaren inguruan egin izan dion aipamena idatziko du. Kartulina guztiak eskolako pasabidean kokatuko dira mural bat eginez. Murala pasabidean jartzearena aukera egokia izan daiteke beste klase batzuetako ikasleek gai honetaz jabetzeko, mezu deigarrien bitartez.



- ★ Hurrengo jardueran olerki eta Jakinduriatzko liburuaren inguruko informazioa irakurriko dute. Liburu horietan Israelgo jakinduria osoa biltzen da

hastapenetatik, idazkera asmatu baino askoz lehenagotik. Israel herriak, olerkigintza eta jakinduriako jeneroa bere hastapenetatik landu zituen. Dena den, jakinduarizko jeneroa, bereziki, Salomon erregearekin erlazionatzen dugu, Jainkoak neurririk gabeko jakinduria eman baitzion berari. Izatez, Esaera Zaharrak liburuan dauden 3.000 esaera baino gehiago esan zituen berak. Liburu multzo honetan, liburu poetiko bi daude: Salmoak eta Kantarik Ederrena, eta jakinduriako izenez ezagutzen diren beste bost: Job, Esaera Zaharrak, Kohelet, Ben Siraken Jakinduria eta Jakinduria. Ikasleek bilduma horien inguruko informazioa irakurri beharko dute eta ondoren “enuntziatuak lotu” jarduera bat egin beharko dute. Alde batean bildumaren izena agertuko da eta beste aldean horren definizioa edo esanahia. Definizioa bilduma egokiarekin lotu beharko dute.



EDUKIAK [solaputa]

- 1 Ezaugerri nagusiak
- 2 Orriak, galderak, erantzunak eta errefortzuak
- 3 Ordina logikoa eta nabigazio-ordena
- 4 Erantzun zuzenak eta erantzun okerrak
- 5 Kalifikatu
- 6 Berriz saiatu
- 7 Ikasgela somu
- 8 Txartel erako ikasgaiak (Flash Card)
- 9 Ikasgaiaren galdera-motak
 - 9.1 Aukera anitzekoa eta erantzun anitzekoa
 - 9.2 Erantzun laburra
 - 9.3 Egia/gezurra
 - 9.4 Enuntziatuak lotu**
 - 9.5 Zerbaitzko galderak
- 10 Adar-taulak
 - 10.1 Jarduera-moduluak


★ Bibliaren aholkuak: Gurasoak, aitona-amonak idazketa asmatu baino lehenagotik ari dira belaunaldi gazteenei mendeetan bildutako jakinduria eta esperientziak transmititzen. Bibliak ere lan hori egin izan du bere mezuen bitartez. Jarduera honetan ikasleek Bibliako pasarte ezberdinak (esaera zaharrak) aztertuko dituzte eta bere esanahiaren inguruan arituko dira.

EsZ 1,8-9: Kontuz lagun gaiztoekin

EsZ 3,27-29: Lagun hurkoa maite duena Jaunak bedeinkatu

Esaera zahar hauek azertu ostean GALDETEGI motako jarduera batean (deskribatzekoa) honako galderei erantzuna emango diete.

- Zer esan nahi du esaera zahar horrek?
- Zure eguneroko bizitzako adibide batekin konparatu dezakezu?



- ★ Azken erronkaren (bertso bat sortzea) prestaketan murgilduko dira. Horretarako saiatuko gara bertsolari bat eskolara ekartzen ikasleei jardun horretan laguntzeko eta azalpen ezberdinak emateko (errimak, zortziko txikia...). Gogoratu behar da sortu behar duten bertsoan erlijio kristaurekin zerikusia daukan mezu bat bota beharko dutela. Unitatean zehar jorratutako edozein gai jorratu dezakete (gizartean dauden bidegabekeriak, etab)



- ★ Hainbat saiotan horren inguruan lan egin eta gero dagoeneko bertso saioaren egunera ailegatu gara. Horretarako gurasoak gonbidatuko ditugu eta eskolako aretoan bertso saioa ospatuko da.



Ebaluazioa:

- Auto-ebaluazioa

Kasu honetan ikasle bakoitzak unitatean zehar burututako lana ebaluatu egingo du eta baita azken erronka ere. Baliabide teknologikoen erabilera ere ebaluatu egingo da, kasu honetan Moodlearen ingurukoa. Ikasleak galdetegi bat bete beharko du honako galderen inguruan:

- Gustura sentitu zara unitate honetan zehar?

- Zer da unitate honetan zehar ikasi duzuna eta landutako gaien inguruan zer ikastea gustatuko litzaizuke?
- Zein hobekuntza proposatuko zenioke zure buruari?
- Eta unitateari?
- Kristautasunaren zein alderdi ulertzen dituzu orain hobeto?
- Talde lanean aritu zarenean zein uste duzu izan dela taldekideei egin diezun ekarpen nagusiena?
- Eta taldekideek zuri?
- Moodlearen erabilera kontuan hartuta zeintzuk dira gehien gustatu zaizkizun jarduerak?
- Eta gutxien?
- Moodlearekin egin behar izan dituzun jardueraren baten arazo deigarririk izan al duzu?
- Zein nota jarriko zenioke zure buruari? (1etik 5era)

Koebaluazioa

Kasu honetan talde lana ebaluatuko da, unitatean zehar taldean burutu diren jarduera guztiena. Horretarako balorazio-taula bat bete beharko dute. X bat jarri beharko dute zutabe bakoitzean.

Osagaia	Oso ondo	Ondo	Hobetu beharra
Taldekide guztien konpromezua egokia izan da.			
Taldekide guztien artean errespetua nagusi izan da.			
Taldekide guztien iritziak entzun eta errespetatu dira			
Taldekide batek laguntza behar izan duenean laguntza hori ematen saiatu gara.			
Talde lanaren balorazio orokorra			

Behaketa zuzena

Ebaluazio hau irakasleak ikasleari egiten diona izango da. Alde batetik unitatearen ebaluazio irizpideak bere lorpen adierazleekin ebaluatuko dira eta bestetik komunikazio

digitalaren konpetentziak garatu dituen edo ez ebaluatuko da. Irakasleak balorazio-
 taula bat bete beharko du.

Osagaia	Bai	Ez	Batzuetan
Jakinduriarako liburuek historian zehar izan duten garrantziaz jabetzen da eta horien aberastasuna estimatzen du.			
Israelgo Herria Jainkoaren ezagutzaren jasotzaile dela ohartzen dira			
Ahozko literaturak historian zehar mezuak helarazteko iturri garrantzitsu bat izan delako kontzientzia dauka.			
Gizartean existitzen diren bidegabekeria ezberdinak aztertzen ditu eta horiei erantzun bat ematen saiatzen da.			
Komunikazio digitala:			
Informazio iturri ezberdinak kontsultatu egiten ditu eta informazio hori modu egokian kudeatzen du.			
Informazioa ikaskideekin zein irakaslearekin partekatzeko gai da.			
Informazio horren balioa eta sinesgarritasuna egiaztatzen egiten du			
Linean komunikatzeko gai da foroen bitartez			
Komunikazio mota ezberdinak kudeatzen ditu			

(foroetako mezuak, etab)			
Produktu digital originalak sortzen ditu			
Teknologiaren erabilerak osasunean izan ditzakeen ondorioez jabetzen da.			
Jarduera batean izan ditzakeen arazo teknikoek jabetzen da eta erantzun bat ematen saiatzen da.			
Teknologia digitalak bai bakarka zein lankidetzan erabiltzeko gai da.			

Bukatzeko, irakasleak baliabide digitalaren (Moodlea kasu honetan) balorazioa egingo du. Unitatean zehar planteatutako jarduerak eragin positibo edo negatiboa izan duten eta hobekuntza posibleak planteatuko ditu etorkizuneko unitateei begira. Irakasleak idatziz honako galderi erantzun beharko die:

- Moodle plataforman planteatu diren jarduerak zer nolako erantzuna jaso dute ikasleen partetik?
- Moodle plataforman planteatu diren jarduerak aurretik planteatutako helburuak betetzeko balio izan dute?
- Planteatutako jarduerak anitzak izan dira eta talde lana zein bakarkako lana sustatu dute?
- Ikasleei jarduerak egiteko emandako denbora nahikoa izan da?
- Zeintzuk izan dira unitate honetan zehar plataforma honek izan dituen bertute eta gabezia nagusiak?
- Zein hobekuntza egingo zenuke datorren unitateari begira?

3. Unitatearen izena: Hauek nire azken hitzak!	Denboralizazioa: 3.Hiruhilabetea (14 ordu)	Maila: LH 6
Proposamenaren justifikazioa: Aurreko unitatean aztertu dugu nola mezuak helarazteko modu ezberdinak daudela eta Jainkoak nola hitz egiten duen. Gaur egun badaude oso mezu sortzaile famatuak, <i>youtuberrak</i> alegia. Haien eragina gizartean izugarria da. Unitate honetan Jesusen bizitzako unerik garrantzitsuenak aztertuko dira. Horietako bat haren Piztuera da. Historia amaitzear dagoela jakingo bagenu, nola gustatuko litzaiguke besteok gu gogoratzea? Zer esango genieke? norekin egotea gustatuko litzaiguke azken egunean? Jesusek dizipuluekin egindako azken afarian bere keinua gogoratu eta haren izenean errepikatu zezaten eskatu zien, bazekielako haren hitzak altxor bat bezala gordeko zituztela.		
Zer egingo da: <ul style="list-style-type: none"> • Jesusen bizitzako unerik garrantzitsuenak ezagutu. • Jesusen irakaspenak ulertu eta transmititu. • Jesusen heriotzak eta Pizkundeak pertsonen patuan daukan funtzioaz jabetzea. 		
Amaierako erronka: Ikasleek taldeka Jesusek dizipuluekin egindako azken afariaren errepresentazio bat egingo dute. Mundua bukatuko balitz, nola gustatuko litzaieken izatea azken gau hori antzeztu beharko dute. Bideoz grabatuko dute eta muntaia egingo dute programa bat erabiliz. Ondoren bideo hori eskolako Youtube kanalera igoko da.		
Edukiak: 3. Blokea (Jesukristo, Salbazio Historiaren betetzea) <ul style="list-style-type: none"> • Jesukristok Aita azaldu egiten du • Jesusek dizipuluak bidaltzen ditu bere misio salbatzailearekin jarraitu dezaten. <p style="text-align: center;">4. Blokea (Jesukristoren iraunkortasuna historian: Eliza)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jesusen pizkundera: poztasuna eta bakea • Kristauak, pizkunderaren testigu 		

Ebaluazio irizpideak:

1. Jesusen bitartez Jaungoikoa aurkitzen dugula bereiztea

3. Ulertzea Jesusen misioa Elizan jarraitu egiten dela.

1.Paskuaren denbora liturgikoaren ezaugarriak identifikatzea

3.Berpiztuarekin izandako topaketan izandako bizitza aldaketa baloratzea eta aitortzea

Lorpen estandarrak:

1.2. Juanen Ebanjelioan, Jesusek Aitaren inguruan azaltzen dituen ezaugarriak identifikatu eta laburbildu egiten ditu.

3.2. Jesusen eta Elizaren ekintzen konparaziozko mapa sortzen du.


2.2. Idazlan bat sortzen du non adierazten duen dizipuluek berpiztuarekin bizi izan zuten poztasuna eta bakea.

3.1.Kristauen testigantzak aukeratzen ditu eta berpiztuarekin topatzean emandako aldaketa justifikatu egiten du.

Jarduerak:

★ Nor naiz ni? ikasleei eskatuko diegu haien inguruan hausnartzeko. GALDETEGI motako jarduera batean (deskribatzekoa) honako galderari erantzuna emango diete.

- Nola definituko zenuke zure burua?
- Zer pentsatzen dute klase-kideek zutaz?
- Klase-kideei galdetu ahal diezue eta haiek pentsatzen dutena idatzi.




★ Zer pentsatzen zuten dizipuluek Jesusi buruz? Ikasleek Bibliaren Mk 8,27-29 pasartea irakurriko dute eta behin irakurrita honako galderari erantzuna emango diote plataformako FOROAN. Horren inguruko informazioa sarean edo beste informazio iturrietan bilatu dezakete. Foroaren bitartez ikasleen parte hartzea eta haien arteko interakzioa sustatu nahi da eta bestetik, iturri ezberdinen bitartez informazioa hautatzean ikasiko dute jakiteko zein den baliagarria eta fidagarria eta zein ez.


- Zer esan nahi du Mesias hitzak?
- Zein da haren misio nagusia?



★ Bibliarekin solasean: Ikasleek bakarka Bibliaren laguntzaz Jesusen bizitzako momenturik garrantzitsuenak islatzen dituzten zazpi pasarte aukeratu behar dituzte. Behin hori eginda pasarte horietan gertatzen denaren marrazki bat egingo dute *paint* programaren laguntzaz. Hauek izango dira momentu horiek: Azken afaria, Piztuera, otoitza Olibetako Mendian, haren epaiketa, zigorra eta heriotza gurutzean. Jarduera honen bitartez historiako momentu garrantzitsuenak islatu nahi dira hobeto ikasteko asmoz. Gainera, arte hezkuntzan ere eragin positiboa ekarri lezake.



- ★ Jesusen jarraitzaileak eta Ebanjelioaren testiguak: Ikasleak bakarka honako web gunean sartuko dira. Esteka hori plataformako zereginean izango dute ikusgai. Web gune horretan (https://www.bidean.net/espiri_comunidad_seguidores_bat.php) sinestun batzuen testigantzak daude. Testigantza horietako bi aukeratu beharko ditu ikasle bakoitzak. Ondoren audio baten bidez bi sinestun horien deskribapena egin beharko du eta bi testigantza horiek azaldu beharko ditu. Azkenik, Jesusek berari transmititzen diona adieraziko du, hau da, Jesusek bere bizitzan zertan laguntzen dion.



- ★ Elizak Jesusen bideari jarraipena ematen dio: jarduera honetan (zeregin motakoa) ikasleek bi irudi izango dituzte ikusgai. Jesusena alde batetik eta Eliza batena bestetik. Alboan ekintza ezberdinak egongo dira. Batzuk Jesusek egindakoak izango dira eta beste batzuk Elizak (zeinek Jesusen misioa jarraitzen duen) egiten dituen ekintzak egongo dira. Ikasleek egin beharko dutena izango da ekintza bakoitza bere egilera eramatea. Jarduera hau nahiko dibertigarria suertatu dakieke eta oso modu bisualean jasoko dute feedbacka, horrek haien ikasketan eragin positiboa izateko.



- ★ Nire oroimenez: hurrengo jardueran ikasleek “Azken afariaren margolana” aztertuko dute arbel digitalean. Behin aztertuta honako galdera egingo diegu ikasleei:
 - Zer irudikatzen du margolan honek?
 - Nork sortu du?
 - Non aurkitu dezakegu?

Bakarka (erantzuna ez badakite) sarean edo beste informazio iturrien bidez informazioa aurkitu beharko dute. Ondoren Moodleko zeregin batean galdera horiek erantzuteko hiru aukera posible izango dituzte baina bakarra izango da egokia (aukera anitzeko galdera). Jarduera hau nahiko dibertigarria suertatu dakieke eta oso modu bisualean jasoko dute feedbacka, horrek haien ikasketan eragin positiboa izateko eta bestetik iturri ezberdinen bitartez informazioa hautatzean ikasiko dute zein den baliagarria eta fidagarria eta zein ez ikasteko.

EDUKIAK [erakutsi]

- 1 Ezaguerri nagusiak
- 2 Orriak, galderak, erantzunak eta errefortzua
- 3 Ordena logikoa eta nabigazio-ordena
- 4 Erantzun zuzenak eta erantzun okerrak
- 5 Kalifikatu
- 6 Berriz saiatu
- 7 Ikasgela sortu
- 8 Txartel erako ikasgaiak (Flash Card)
- 9 Ikasgaiaren galdera-motak
- 9.1 Aukera anitzeko edo erantzun anitzekoak
- 9.2 Erantzun laburra



★ Azken afaria eta Biblia: ikasleek Bibliaren bi pasarte hauek irakurri beharko dituzte: Lk 22,14-20 eta 1 Ko 11,23-25. Bi pasarte horiek irakurri eta bere esanahiaren inguruan hausnartzen dutenean bideo bat grabatu beharko dute web-kamerarekin edo mugikorrekin bi galdera hauei erantzunez:

- Nola ospatuko zenuke zuk zure azken afaria, jakingo bazenu hurrengo egunean zure lagunak eta senideak ikusteari utziko diozula? afari bat egingo zenuke edo beste modu batean ospatuko zenuke?
- Nortzuk gonbidatuko zenituzke ospakizun horretara eta zein azken mezu helaraziko zenieke?

Bi galdera hauen bitartez bere bizitzaren inguruan hausnarketa egingo dute eta benetan inporta zaienaren inguruan ideia bat izango dute eta aditzera emango dute



★ Hurrengo jardueran kulturak heriotzaz nola hitz egiten duen aztertuko dugu. Horretarako Xabier Lete-ren *“Xalbadorren heriotzean”* abestia entzungo dugu eta guztion artean abesti horren inguruko hausnarketa egingo dugu.



★ Ikasleek Jesusen piztueraren inguruko audio bat entzungo dute (audioa entzuten duten bitartean testua irakurri ahal izango dute). <https://www.iw.org/eu/liburutegia/liburuak/bibliari-buruzko-nire-liburua/13/jesusen-piztuera/> Behin irakurrita plataforman galdera honi erantzuna ematen saiatuko dira. Hiru aukera posible izango dituzte baina bakarra izango da egokia (aukera anitzeko galdera).

- Zer gertatu zen emakumeak Jesusen hilobira joan zirenean? Zer pasa zen Emaus bidean?

Jarduera hau nahiko dibertigarria suertatu dakieke eta oso modu bisualean jasoko dute feedbacka, horrek haien ikasketan eragin positiboa izateko.

EDUKIAK [estutu]

- 1 Ezaguerri nagusiak
- 2 Orriak, galderak, erantzunak eta errefortzuak
- 3 Ordena logikoa eta nabigazio-ordena
- 4 Erantzun zuzenak eta erantzun okerrak
- 5 Kalifikatu
- 6 Berriz saiatu
- 7 Ikasgala sortu
- 8 Txartel erako ikasgaiak (Flash Card)
- 9 **Ikasgaiaren balidatze-mota**
- 9.1 Aukera anitzeko eta erantzun anitzeko
- 9.2 Erantzun laburra

★ Hurrengo jardueran Pazkoaren kondairaren inguruko bi bideo ikusiko dituzte arbel digitalean.

https://www.youtube.com/watch?v=nKFqY_LIQNk

<https://www.youtube.com/watch?v=Zw11ZscYvJs&list=TLPQMTAwNzlwMjCjI1eZLGn36g&index=1>



- ★ Behin bideoak ikusita, Moodleen ardatz kronologiko bat izango dute eta ikasleek lau gertakizun hauek orden egokian jarri beharko dituzte: Azken afaria, heriotza gurutzean, Pizkundea eta Pazkoa. Gertakizun horiek toki egokira eraman beharko dituzte. Jarduera hau oso motibagarria suertatu dakieke hitzak eta irudiak elkartzen direlako oso modu bisualean.



- ★ Oraingoan, Gontzal Mendibilek 1993.urtean sortutako “Olentzero” diskaren abesti bat entzungo dugu. <https://www.youtube.com/watch?v=1alqlrkNqIE> (24:45-27:10 min bitartean). Klasean abestia bizpahiru aldiz jartzen dugun bitartean ikasleek GALDETEGI motako jarduera batean abestian falta diren hitzak idatziko dituzte. Zuzenketak egiteko abestia berriro ere entzungo dute eta zuzentzeko aukera izango dute.



Ondoren, honako bi galderak planteatuko dizkiegu ikasleei hausnartu dezaten. Galdera horien erantzunak FOROAN partekatuko dituzte:

- Abeslariari aurreko unitatean ikusitako zein pertsonaiaren itxura hartzen diozue? Eta, baserritarrek zein paper beteko lukete?
- Zein da abeslariak eman nahi duen mezu nagusia?


Galdera hauen bitartez aurretik ikasitako edukiak birgogoratu nahi ditugu ahaztu ez ditzaten.

- ★ Dagoeneko azken erronkaren (bideo grabaketaren) prestaketara heldu gara. Horretarako taldeak sortuko dira. Behin taldeak sortuta partaide bakoitzaren errolak aukeratu dituzte eta baita ere zein material edo arropa behar izango duten. Hauek izango dira errolak: zuzendaria, aktoreak, gidoilaria eta bideo-editorea. Gogoratu Jesusek dizipuluekin egindako azken afariaren errepresentazio bat egin behar dutela, Jesusek dizipuluei mezu bat iragarritz.


Behin errolak izendatuta taula baten idatziko dute ikasle bakoitzaren errola eta irakaslearekin konpartituko dute..



- ★ Hainbat egunez bideoaren prestaketarekin jardungo dira ikasleak. Kasu honetan irakasleak *movie maker* doako bideo editorearen erabilpena azalduko die ikasle guztiei (nola deskargatu, nola erabili adibide batekin, etab)



- ★ Grabaketaren egunera ailegatu gara. Azken afariaren errepresentazioa eskolako jantokian egingo da eta ikasle bakoitzak bere errola beteko du. Behin grabaketa eginda eskolako kamera batekin bideo-editoreak bideoa editatuko du eta azkenik irakaslearen laguntzaz bideoa eskolako Youtube kanalera igoko du.



Ebaluazioa:

- Auto-ebaluazioa

Kasu honetan ikasle bakoitzak unitatean zehar burututako lana ebaluatu egingo du eta baita azken erronka ebaluatu ere. Baliabide teknologikoen erabilera ere ebaluatu egingo da, kasu honetan Moodlearen ingurukoa. Ikasleak galdetegi bat bete beharko du eta honako galderen inguruan:

- Gustura sentitu zara unitate honetan zehar?

- Zer da unitate honetan zehar ikasi duzuna eta landutako gaien inguruan zer ikastea gustatuko litzaizuke?
- Zein hobekuntza proposatuko zenioke zure buruari?
- Eta unitateari?
- Kristautasunaren zein alderdi ulertzen dituzu orain hobeto?
- Talde lanean aritu zarenean zein uste duzu izan dela taldekideei egin diezun ekarpen nagusiena?
- Eta taldekideek zuri?
- Moodlearen erabilera kontuan hartuta zeintzuk dira gehien gustatu zaizkizun jarduerak?
- Eta gutxien?
- Moodlearekin egin behar izan dituzun jardueraren baten arazo deigarririk izan al dituzu?
- Zein nota jarriko zenioke zure buruari? (1etik 5era)

Koebaluazioa

Kasu honetan talde lana ebaluatuko da, unitatean zehar taldean burutu diren jarduerak guztiena. Horretarako balorazio-taula bat bete beharko dute. X bat jarri beharko dute zutabe bakoitzean.

Osagaia	Oso ondo	Ondo	Hobetu beharra
Taldekide guztien konpromezua egokia izan da.			
Taldekide guztien artean errespetua nagusi izan da.			
Taldekide guztien iritziak entzun eta errespetatu dira			
Taldekide batek laguntza behar izan duenean laguntza hori ematen saiatu gara.			
Talde lanaren balorazio orokorra			

Behaketa zuzena

Ebaluazio hau irakasleak ikasleari egiten diona izango da. Alde batetik unitatearen ebaluazio irizpideak bere lorpen adierazleekin ebaluatuko dira eta bestetik komunikazio

digitalaren konpetentziak garatu dituen edo ez ebaluatuko da. Irakasleak balorazio-
 taula bat bete beharko du.

Osagaia	Bai	Ez	Batzuetan
Jesusen bitartez Jaungoikoa aurkitzen dugula bereiztea			
Jesusen eta Elizaren ekintzen konparaziozko mapa sortzen du.			
Dizipuluek berpiztuarekin bizi izan zuten poztasuna eta bakea aztertzen du			
Kristauen testigantzak aukeratzen ditu eta berpiztuarekin topatzean emandako aldaketa justifikatu egiten du.			
Jesusen bizitzako unerik garrantzitsuenak ezagutzen ditu.			
Jesusen heriotza eta Pizkundea pertsonen patuan daukan funtzioaz jabetzea			
Komunikazio digitala:			
Informazio iturri ezberdinak kontsultatu egiten ditu eta informazio hori modu egokian kudeatzen du.			
Informazioa ikaskideekin zein irakaslearekin partekatzeko gai da.			
Informazio horren balioa eta sinesgarritasuna egiaztatu egiten du			
Linean komunikatzeko gai da foroan bitartez			
Komunikazio mota ezberdinak kudeatzen ditu (foroetako mezuak adibidez)			
Produktu digital			

originalak sortzen ditu (kasu honetan movie maker)			
Jarduera batean izan ditzakeen arazo teknikoez jabetzen da eta erantzun bat ematen saiatzen da.			
Teknologia digitalak bai bakarka zein lankidetzan erabiltzeko gai da.			

Bukatzeko, irakasleak baliabide digitalaren (Moodlea kasu honetan) balorazioa egingo du. Unitatean zehar planteatutako jarduerak eragin positibo edo negatiboa izan duten eta hobekuntza posibleak planteatuko ditu etorkizuneko unitateei begira. Irakasleak idatziz honako galderari erantzun beharko die:

- Moodle plataforman planteatu diren jarduerak zer nolako erantzuna jaso dute ikasleen partetik?
- Moodle plataforman planteatu diren jarduerak aurretik planteatutako helburuak betetzeko balio izan dute?
- Planteatutako jarduerak anitzak izan dira eta talde lana zein bakarkako lana sustatu dute?
- Ikasleei jarduerak egiteko emandako denbora nahikoa izan da?
- Zeintzuk izan dira unitate honetan zehar plataforma honek izan dituen bertute eta gabezia nagusiak?
- Zein hobekuntza egingo zenuke datorren unitateari begira?

3.KAPITULUA

Ondorioak

Gutxi dira erlijioaren irakaskuntza eta IKTen arteko harremana aztertu dituzten lanak eta, ondorioz, zaila da erreferentzia sendorik aurkitzea. Lan honek agerian utzi nahi dut errealitate hori eta bidea ireki nahi die eskoletan lan horretan ari diren irakasleei euren zereginetarako makulu bat izan dezaten.

Aurreko orrialdeetan proiektuaren nondik norakoak azaldu dira modu teoriko batean (zer egingo den, nola egingo den, norentzat egingo den eta zeintzuk helburu planteatzen diren). Proiektu hau praktikara eramatea bakarrik falta zaigu, alegia, Moodle plataforman ikastaro hau sortzea eta erlijio klasean ezartzea ikasleekin batera. Ondorio nagusi batzuk ateratzea zaila da momentu honetan, proiektua praktikan ez delako jarri ez dakigulako baliabide teknologiko honek ondo funtzionatuko duen eta zein izango den ikasleen erantzuna horrekiko.

Dena den, edozein proiektutan murgiltzen garenean ilusioz gainezka aritzen gara eta helburu edo xede ezberdinak planteatzen ditugu. Gure kasuan erabili nahi ditugun baliabideak kontuan hartuta, kasu honetan Moodle baliabide teknologikoa, hasieran aipatzen genituen bi helburu orokor hauek lortu nahi ditugu: erlijioa irakasgaiari orain artekoa baino metodologia praktikoagoa eskaintzea eta bestetik ikasleen motibazioa areagotzea irakasgaia IKTen bidez landuta. Ez dugu ahaztu behar, irakasgaien eta IKTen arteko lotura hori irakasgai guztietan ari dela gertatzen eta Erlijio eta moral katolikoa ezin da bide horretatik kanpo geratu. Motibazio hau lortzen baldin bada, uste eta espero dugu arlo hau erakargarriagoa suertatu dakiekeela ikasleei eta matrikulen tendentzian ere eragin positiboa ekarri dezakeela, matrikulen kopurua handituz.

Bibliografia

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15)

Ameneiro, Ana S. (2018 maiatzaren 16a). "Un profesor motivado no es suficiente para educar con éxito. *Diario de Sevilla*. https://www.diariodesevilla.es/entrevistas/profesor-motivado-suficiente-educar-exito_0_1245775469.html

Arroyo eta Camacho (2018) *2.2 Pedagogia, Didaktika eta Metodologia kontzeptuak argitzeko saiakera [infografia]*. Hemendik berreskuratua: Bigarren gaia: Metodologia-joera berriak eta berrikuntza.

Bastante, J.(2019ko apirilaren 29a). Continúa el descenso de los alumnos que optan por la Religión en España. *Religión Digital*. https://www.religiondigital.org/educacion/Continua-descenso-alumnos-Religion-Espana-obispos-espana-secundaria_0_2117188276.html

Fdez.Vallejo, M. (2018). Apenas un 18% de los alumnos de los centros públicos vascos estudia Religión Católica. *El Correo*. <https://www.elcorreo.com/sociedad/educacion/apenas-alumnos-centros-20181028215021-nt.html>

Gallardo Nieto, Jesús M. #ReliEsTendencia – Innovación o el necesario cambio metodológico en Religión Católica. *edebé*. <https://profesoresreligioncatolica.edebe.com/reliestendencia-innovacion-o-el-necesario-cambio-metodologico-en-religion-catolica/>

Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la Mejora de la Calidad Educativa (LOMCE), Boletín Oficial del Estado (BOE). 10 de diciembre de 2013

Pellicer,C, Varela,M. (2017). *LMH 6 Kumi. Erljioa proiektuka*. Zaragoza: Ibaizabal.

Real Decreto 126/2014, de 28 de febrero, por el que se establece el currículo básico de la Educación Primaria. Boletín Oficial del Estado (BOE). 1 de marzo de 2014